



## Antolamendu mailako komunikazioa

Teknologia digitalak erabiltzea ikasle, guraso eta hirugarrengoein antolamendu mailako komunikazioa hobetzeko. Lankidetzan arituz antolamendu mailako komunikazio-estrategiak garatzen eta hobetzen laguntzea.

### Jarduerak

- ◆ Teknologia digitalak erabiltzea ikaskuntza-baliabide gehigarriak eta informazioa sortu eta ikasleen (eta gurasoen) eskura jartzeko.
- ◆ Teknologia digitalak erabiltzea antolamendu mailako prozedurak jakinarazteko ikasle eta gurasoei, hala nola arauak, hitzorduak eta jarduerak.
- ◆ Teknologia digitalak erabiltzea ikasleei eta gurasoei banaka informazioa emateko, hala nola aurrerabidez eta intereseko kontuez.
- ◆ Teknologia digitalak erabiltzea lankideekin komunikatzeko erakunde barruan eta handik kanpo.
- ◆ Teknologia digitalak erabiltzea hezkuntza-proiekturako garrantzitsuak diren hirugarrengoein, hala nola gonbidatuko diren adituekin eta bisitatuko diren lekuekin.
- ◆ Erakundearen webgunearen bidez komunikatzea, edo kontratatutako teknologia digital, plataforma edo komunikazio-zerbitzu korporatiboen bidez.
- ◆ Erakundearen webgunea edo ikasketa-ingurune birtuala edukiz hornitzea.
- ◆ Elkarlanean, antolamendu mailako komunikazio-estrategiak garatzen eta hobetzen laguntzea.

Bilakaera		Gaitasun-mailari buruzko adierazpenak
<b>Hasiberria (A1)</b> 	Teknologia digitalak <b>gutxi erabiltzea</b> komunikaziorako.	Gutxitan erabiltzen ditut teknologia digitalak komunikaziorako.
<b>Esploratzailea (A2)</b> 	<b>Kontziente izatea</b> eta <b>oinarrizko moduan erabiltzea</b> teknologia digitalak komunikaziorako.	Ikasle, guraso, lankide eta laguntzaileekin komunikatzeko erabiltzen ditut teknologia digitalak.
<b>Integratzailea (B1)</b> 	Teknologia digitalak <b>eraginkortasunez</b> eta <b>arduraz</b> erabiltzea komunikaziorako.	Komunikazio-bide eta -tresna desberdinak erabiltzen ditut, komunikazio-helburuaren eta testuinguruaren arabera.  Modu arduratsuan eta etikoan komunikatzen naiz teknologia digitalen bidez; alegia, <i>netiketa</i> eta erabileraren arduratsurako arauak errespetatuz.
<b>Aditua (B2)</b> 	Teknologia digitalak modu <b>egituratu</b> eta <b>kontzientean</b> erabiltzea komunikaziorako.	Bide, formatu eta estilo egokiena aukeratzen dut, komunikazio-helburu eta testuinguru bakoitzerako.  Hartzailearen arabera aldatzen ditut komunikazio-estrategiak.
<b>Liderra (C1)</b> 	Komunikazio-estrategiak <b>ebaluatzea</b> eta haietatik <b>hitz egitea</b> .	Ebaluatu, hausnartu eta besterekin hitz egiten dut ea teknologia digitalak nola erabil ditzakegun eraginkortasunez erakundeko eta banakako komunikaziorako.  Teknologia digitalak erabiltzen ditut administrazio-prozedurak gardenagoak izan daitezen ikasle eta/edo gurasoentzat eta etorkizuneko ikaskuntza-lehentasunen inguruan jakinaren gaineko hautuak egin ditzaten.
<b>Aurrendaria (C2)</b> 	Komunikazio-estrategiak <b>berriro diseinatzeaz</b> hausnartzea.	Ikuspegi edo estrategia koherente bat garatzen laguntzen dut, teknologia digitalak komunikaziorako modu eraginkor eta arduratsuan erabiltzeki buruz.



## Lankidetza profesionala

Teknologia digitalak erabiltzea beste irakasle batzuekin lankidetzan aritzeko, jakintza eta esperientzia partekatuz eta trukatzuz eta elkarlanean jardunbide pedagogikoak berrituz.

### Jarduerak

- ◆ Teknologia digitalak erabiltzea beste irakasle batzuekin elkarlanean jarduteko, proiektu edo ataza jakin batean.
- ◆ Teknologia digitalak erabiltzea lankideekin eta kideekin ezagutza, baliabideak eta esperientziak partekatzeko eta trukatzeko.
- ◆ Teknologia digitalak erabiltzea elkarlanean jardunez hezkuntza-baliabideak sortzeko.
- ◆ Lankidetza-sare profesionalak erabiltzea jardunbide pedagogikoak esploratzeko eta haietaz hausnartzeko.
- ◆ Lankidetza-sare profesionalak erabiltzea norberaren garapen profesionalerako.

Bilakaera		Gaitasun-mailari buruzko adierazpenak
<b>Hasiberria (A1)</b> 	Teknologia digitalak <b>gutxi erabiltzea</b> lankidetzarako.	Gutxitan erabiltzen ditut teknologia digitalak lankideekin elkarlanean aritzeko..
<b>Esploratzailea (A2)</b> 	<b>Kontziente izatea eta oinarrizko moduan erabiltzea</b> teknologia digitalak lankidetzarako.	Teknologia digitalak erabiltzen ditut erakundeko lankideekin elkarlanean aritzeko, hala nola proiektu amankomunak egiteko, edo edukiak, ezagutza eta iritziak trukatzeko.
<b>Integratzailea (B1)</b> 	Teknologia digitalak erabiltzea jardunbideak <b>partekatu</b> eta <b>trukatzeko</b> .	Komunitate digitalak erabiltzen ditut baliabide edo metodo pedagogiko berriak esploratzeko eta ideia berriak lortzeko.  Teknologia digitalak erabiltzen ditut erabiltzen ditudan baliabideak, ezagutza eta iritziak partekatu eta trukatzeko nire erakundeko eta handik kanpoko lankideekin.
<b>Aditua (B2)</b> 	Teknologia digitalak erabiltzea <b>elkarlanean ezagutza eraikitzeko</b> .	Modu aktiboan erabiltzen ditut komunitate digitalak ideiak trukatzeko eta baliabide digitalak elkarlanean garatzeko.
<b>Liderra (C1)</b> 	Teknologia digitalak erabiltzea jardunbideak eta gaitasunak <b>hobetzeko</b> eta haietaz <b>hausnartzeko</b> .	Kide naizen lankidetzaren sareetan sortutako ezagutza eta baliabideak erabiltzen ditut nire gaitasunak hobetzeko eta haiei buruzko feedbacka lortzeko, bai eta nire jardunbide digitalen errepertorioa zabaltzeko ere.
<b>Aurrendaria (C2)</b> 	Teknologia digitalak erabiltzea <b>jardunbide berritzaileak sustatzeko</b> .	Komunitate digitalak erabiltzen ditut beste irakasle batzuei gaitasun digital eta pedagogikoak garatzen laguntzeko.  Komunitate digitalak erabiltzen ditut lankideekin elkarlanean aritzeko jardunbide pedagogikoak berritze aldera.










## Gogoetan oinarritutako jardunbidea

Banaka eta kolektiboki hausnartzea, modu kritikoan ebaluatzea eta modu aktiboan garatzea norberaren eta hezkuntza-komunitatearen jardunbide pedagogiko digitala.

### Jarduerak

- ◆ Modu kritikoan hausnartzea norberaren jardunbide digital eta pedagogikoaz.
- ◆ Gaitasun-hutsuneak eta hobetu beharreko arloak identifikatzea.
- ◆ Besteei laguntza eskatzea norberaren jardunbide digital eta pedagogikoa hobetzeko.
- ◆ Prestakuntza espezifikoa bilatzea eta profesionalki etengabe garatzeko aukerez baliatzea.
- ◆ Kontzienteki saiatzea norberaren jardunbide pedagogiko digitalen errepertorioa zabaltzen eta hobetzen.
- ◆ Besteei laguntzea gaitasun pedagogiko digitala garatzen.
- ◆ Antolamendu mailan, politika eta jardunbide digitalen gainean hausnartzea eta feedback kritikoa ematea.
- ◆ Aktiboki laguntzea teknologia digitalen erabilerari buruzko antolamendu mailako jardunbide, politika eta ikuspegiak garatzen.

Bilakaera		Gaitasun-mailari buruzko adierazpenak
<b>Hasiberria (A1)</b> 	<b>Zalantzak izatea</b> norberaren garapen-premiez.	Badakit trebetasun digitalak hobetu behar ditudala, baina ez nago ziur nola eta nondik hasi.
<b>Esploratzailea (A2)</b> 	Norberaren garapen-premiez <b>jabetzea</b> .	Jabetzen naiz nire gaitasun digitalen mugez eta prestakuntza-premiez.
<b>Integratzailea (B1)</b> 	<b>Esperimentazioa</b> eta <b>lankideen arteko ikaskuntza erabiltzea</b> garatzeko.	Nire gaitasun pedagogiko digitala hobetzen eta eguneratzen saiatzen naiz esperimentazioaren bidez eta lankideekin batera ikasiz.  Sormena baliatuz probatzen ditut teknologia digitalei esker sortutako metodologia pedagogiko berriak, eta horietaz hausnartzen dut.
<b>Aditua (B2)</b> 	Baliabide multzo bat erabiltzea <b>norberaren</b> jardunbide digital eta pedagogikoak garatzeko.	Aktiboki bilatzen ditut jardunbide onenak, ikastaroak edo bestelako aholkuak, nire pedagogia digitalak eta oro har gaitasun digitalak hobetzeko.  Ebaluatzen, hausnartzen eta lankideekin hitz egiten dut ea teknologia digitalak nola erabil ditzakegun hezkuntza-jardunbidea berritzeko eta hobetzeko.
<b>Liderra (C1)</b> 	Elkarlanean hausnarketagaitzat hartzea eta hobetzea <b>jardunbide pedagogikoa oro har</b> .	Gertutik jarraitzen diet irakaskuntza berritzailearen gaineko gaur egungo ikerketei, eta ikerketen aurkikuntzak nire jardunbidean txertatzen ditut.  Teknologia digitalen erabilerari buruzko politikak eta antolamendu mailako jardunbideak ebaluatzen ditut; haietaz hausnartzen dut, eta lankideekin hitz egiten.  Lankideei laguntzen diet gaitasun digitala garatzen.
<b>Aurrendaria (C2)</b> 	Hezkuntza-politikak eta -jardunbideak <b>berritzea</b> .	Banaka edo lankideekin elkarlanean, ikuspegi bat edo estrategia bat garatzen dut teknologia digitalak erabiliz hezkuntza-jardunbidea hobetzeko.  Hausnarketagaitzat hartzen eta lankideekin eta/edo ikertzaileekin ebaluatzen ditut jardunbide, metodo eta politika digitalak, metodo berritzaileak sortze aldera.








## Etengabeko garapen profesional (EGP) digitala

Iturri eta baliabide digitalak erabiltzea profesionalak etengabe garatzeko.

### Jarduerak

- ◆ Internet erabiltzea prestakuntza egokia eta profesionalki garatzeko aukerak aurkitzeko.
- ◆ Internet erabiltzea norberaren gaitasun espezifikoak eguneratzeko.
- ◆ Internet erabiltzea metodo eta estrategia pedagogiko berriei buruz ikasteko.
- ◆ Internet erabiltzea garapen profesionalerako baliabide digitalak aurkitu eta identifikatzeko.
- ◆ Komunitate profesional digitaletan, trukea erabiltzea garapen profesionalerako.
- ◆ Online trebakuntza-aukerak erabiltzea, hala nola bideo tutorialak, MOOCak eta webinarrak.
- ◆ Teknologia eta ingurune digitalak erabiltzea lankide eta kideei prestakuntza-aukerak emateko.

Bilakaera		Gaitasun-mailari buruzko adierazpenak
<b>Hasiberria (A1)</b> 	Internet <b>gutxi erabiltzea</b> ezagutza eguneratzeko.	Gutxitan erabiltzen dut Internet nire ezagutzak edo trebetasunak eguneratzeko, edo ia inoiz ez.
<b>Esploratzailea (A2)</b> 	Internet erabiltzea <b>ezagutza eguneratzeko</b> .	Internet erabiltzen dut gai jakin bati buruzko ezagutza edo ezagutza pedagogikoa eguneratzeko.
<b>Integratzailea (B1)</b> 	Internet erabiltzea EGPrako <b>aukerak aurkitzeko</b> .	Internet erabiltzen dut garapen profesionalerako prestakuntza egokiak eta bestelako aukera batzuk aurkitzeko (hitzaldiak, kasu).
<b>Aditua (B2)</b> 	<b>Online EGPrako</b> aukerak <b>esploratzea</b> .	Internet erabiltzen dut garapen profesionalerako, hala nola online ikastaroetan eta webinarretan parte hartzeko, edo prestakuntza-material digitala eta bideo tutorialak kontsultatzeko.  Truke formal eta informalez baliatzen naiz online komunitate profesionaletan, garapen profesionalerako.
<b>Liderra (C1)</b> 	Internet <b>kritikoki</b> eta <b>estrategikoki</b> erabiltzea <b>EGPrako</b> .	Balizko online prestakuntza-aukera ugari kontsultatu, eta nire garapen-premiekin, ikasteko moduarekin eta denbora-mugekin bat datozenak hautatzen ditut.  Aktiboki parte hartzen dut online prestakuntzetan, eta horiek hobetzen laguntzen dut, eta besteei laguntzen diet aukera egokiak egiten, feedbacka emanez.
<b>Aurrendaria (C2)</b> 	Internet erabiltzea <b>lankideei EGP emateko</b> .	Teknologia digitalak erabiltzen ditut lankideei aholkuak emateko irakaskuntza-jardunbide berritzaileen gainean, hala nola komunitate profesionaletan, blog pertsonalen bidez, edo prestakuntza-material digitala garatuz haientzat.